

aman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEA

Donostia

www.ehu.eus

EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEA (Donostia)

Ekonomia eta Enpresa Fakultatea Euskal Herriko Unibertsitatea/Universidad del País Vasco UPV/EHUREN parte da. Donostia, Gasteiz, Elcano (Bilbo) eta Sarrikon (Bilbo) eskaintzen du prestakuntza, Sarriko izanik Fakultearen egoitza. Fakultatea Donostian, Gipuzkoako Campusean dago kokatuta, Ibaetan (Oñati plaza, 1 – 20.018 Donostia). Ekonomiaren eta enpresen administrazio eta zuzendaritzaren alorrean ibilbide luzea egin duen irakaskuntzako eta ikerketako gunea da.

Jatorria 1915. urtean dauka, Donostiako Merkataritzako Perituen Eskola sortu zen urtean. Eskola hori Donostiako Merkataritza Eskola bihurtu zen 1923. urtean. Ondoren, 1972.ean, Merkataritza Eskola Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola bilakatu zen.

2016ko urtarrilaren 5etik aurrera, UPV/EHUko zentroyen berrantolaketaren ondorioz, Donostia, Gasteiz, Elcano eta Sarrikoko zentroek Ekonomia eta Enpresa Fakultatea sortuko dute.

Gaur egun, ikastegi modernoa da eta etengabe ari da hazten, bai bertako irakaskuntza-eskaintzari dagokionez, bai ikerketa-jarduerei eta ezaguerak ingurune sozioekonomikora zabaltzeari dagokienez.

GRADUKO TITULUA

Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparrura egokitzeko prozesuaren ondorioz, 2010-2011 ikasturtean "Gizarte eta Zuzenbide Zientzien" adarreko Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua irakasten hasi zen Donostian.

Graduaren helburu orokorra tituludunei ekonomiari eta enpresari buruzko ezaguerak, gaitasunak eta trebetasunak ematea da, enpresetako eta bestelako erakunde publiko nahiz pribatuetako administrazioan eta zuzendaritzan eginkizun ugari betetzeko gai izan daitezen. Era berean, enpresa-egitasmoak abian jartzeko gaitasuna ematen die Graduko tituludunei.





SARRERA BIDEAK

- Batxilergoko titulua izatea eta unibertsitatera sartzeko proba gainditzea
- Goi Mailako Teknikariaren titulua izatea
- 25 urte bete izatea eta sarrera proba gainditzea
- 40 urte bete izatea eta ikasketa-arlo honetan gaitasun profesional frogatua izatea
- 45 urte bete izatea eta sarrera proba gainditzea
- Unibertsitateko titulu ofizial bat izatea
- Kanpoko herrialdeetako heziketa-sistemetatik datorren ikaslea izatea, eta dagozkion baldintzak betetzea
- Unibertsitatera sartzeko baldintzak betetzea, Hezkuntzaren Lege Organikoaren aurretikoa den Espainiako Heziketa Sistemako antolamenduaren arabera

SARTZEKO PROFILA

Sartzeko baldintzak betetzeaz gain, ikasle berriek honako ezaugarri hauek izatea komeni da:

- Ekonomiaren, enpresen eta ingurune sozialaren egoerarekiko interesa izatea
- Zenbakietarako gaitasuna izatea eta hizkuntza matematikoa dezente menderatzea
- Irakurtzeko ohitura eta ahozko eta idatzizko ulermen eta adierazpen egokia izatea
- Bakarka zein taldean lan egiteko gai izatea
- Teknologia berriak erabiltzeko prest egotea, eta informazioa bilatzeko, irazteko eta egituratzeko gai izatea

TITULUKO GAITASUN OROKORRAK

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako gradudunek honako gaitasun hauek izango dituzte

- Enpresa edo erakunde bat zuzentzeko eta administratzeko gaitasuna, ikasitako ezagutzak aplikatuz
- Enpresa edo erakunde bateko edozein arlo funtzionalean integratzeko, edozein kudeaketa-lan egiteko, eta hainbat inguruetan lan egiteko trebetasuna
- Hainbat iturritako informazioa bilatzeko, identifikatzeko, aztertzeko eta laburtzeko gaitasuna. Jasotako datuekin arrazoitutako juizioak egiten jakitea, pentsamendu analitiko eta hausnarketa kritikoa erabiliz
- Txosten argiak eta koherenteak egiteko eta aurkezteko gaitasuna, erabaki egokiak hartzen laguntzeko
- Eskura dauden baliabideak eraginkortasunez esleitzeko gaitasuna, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliz
- Taldean lan egiteko gaitasuna, ardura eta begirunea, ekimena eta sormena, buruzagitza eta komunikazio arina
- Etengabe eta nor bere kabuz ezagueria eta teknika berriak ikastea
- Atzerriko hizkuntza batean komunikatzea, ahal bada, ingelesez, frantsesez edo alemanez





EGRESATUAREN PROFILA

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako gradudunak:

- Enpresa-erakundeak ulertu beharko ditu, ingurune irekian elkarri eraginez jarduten diren sistema konplexu gisa
- Prestakuntza osoa eta erabilera askokoa izango du, eta enpresetan eta bestelako erakunde publikoetan eta pribatueta kudeaketa-lanekin zerikusia duten hainbat eginkizun betetzeko edo bere enpresa-proiektua abian jartzeko gaitasunak emango dizkio
- Enpresetako arlo funtzionaletan erabiltzen diren kontzeptuak eta teknikak erabiltzen jakingo du, eta erakundeetako arlo funtzionalen eta helburu orokorren arteko erlazioa ulertuko du
- Informazioa kudeatzeko, analizatzeko eta laburtzeko trebetasuna izango du, eta enpresako erabakiak bideratzen eta hartzen jakingo du
- Zalantza-egoeretan erabakiak hartzeko eta aukerak eta mehatxuak detektatzeko eta aurrea hartzeko gaitasuna izango du
- Baliabide materialak eta giza-baliabideak eraginkortasunez esleitzeko, informazioa kudeatzeko, helburuak ezartzeko, emaitzak ebaluatzeko eta ideiak behar bezala komunikatzeko gaitasuna izango du.

Ezaugarrioi esker eta unibertsitateko tituludun orok berez duen gaitasun kritiko eta autokritikoari esker, egoera berrietara egokitzeko eta ingurune oso desberdinetan eta dinamikoetan lan egiteko behar den malgutasuna izango dute gradudunek.

IRTEERA PROFESIONALAK

Gradudunak enpresetako edo erakundeetako parte izan ahalko dira, prestakuntza eta ardura handiko karguetan, edozein arlo funtzionaletan lan egin ahalko dute:

- Analisi ekonomikoa
- Banka eta finantza zerbitzuak
- Kontabilitatea eta ikuskaritza
- Estrategia zuzendaritza
- Giza baliabideen kudeaketa
- Nazioarteko marketinaren eta merkataritza marketinaren kudeaketa
- Ekonomia-finantza kudeaketa eta zerga arloa

Hala, profesionaltasunez lan egin ahal izango dute, arlo pribatuan (enpresak, finantza-erakundeak, aholkularitzak...) zein publikoan (tokiko erakundeak, foru aldundiak, etab.), eta noski, gradudunek beren negozioa sortzeko gaitasuna izango dute. Era berean, beste irtenbide profesional batzuk ere hautatu ahal izango dituzte, hala nola irakaskuntza eta ikerketa.

IKASKETEN ANTOLAKETA

ECTS kredituen banaketa, mailaz maila:

| Maila | ADARREKO OINARRIZKO IRAKASGAIAK | BESTE ADAR BATZUETAKO OINARRIZKO IRAKASGAIAK | NAHITAEZKO IRAKASGAIAK | HAUTAZKO IRAKASGAIAK | GRADU AMAIERAKO LANA | GUZTIRA |
|---------|---------------------------------|--|------------------------|----------------------|----------------------|---------|
| 1 | 48 | 12 | -- | -- | -- | 60 |
| 2 | -- | -- | 60 | -- | -- | 60 |
| 3 | -- | -- | 42 | 18 | -- | 60 |
| 4 | -- | -- | 18 | 30 | 12 | 60 |
| Guztira | 48 | 12 | 120 | 48 | 12 | 240 |





IKASKETA-PLANA

LEHEN MAILA Irakasgaien banaketa mailaz maila:

| 1. lauhilekoa | ECTS | Mota |
|---|------|------|
| • Kontabilitaterako Sarrera | 6 | D |
| • Enpresa Ekonomiarako Sarrera | 6 | D |
| • Matematika I | 6 | S |
| • Ekonomiarako Sarrera I: Mikroekonomiaren Oinarriak | 6 | D |
| • Zuzenbiderako Sarrera | 6 | D |
| 2. lauhilekoa | ECTS | Mota |
| • Finantza Kontabilitatea | 6 | D |
| • Enpresa Ekonomia: Antolakuntza eta Zuzendaritza | 6 | D |
| • Matematika II | 6 | S |
| • Ekonomiarako Sarrera II: Makroekonomiaren Oinarriak | 6 | D |
| • Historia Ekonomikoa | 6 | D |

BIGARREN MAILA

| 1. lauhilekoa | ECTS | Mota |
|---|------|------|
| • Estatistika eta Datuen Analisia | 6 | O |
| • Mikroekonomia | 6 | O |
| • Merkataritza Zuzendaritzarako Sarrera | 6 | O |
| • Finantza Eragiketen Matematika | 6 | O |
| • Kostuen Kontabilitatea | 6 | O |
| 2. lauhilekoa | ECTS | Mota |
| • Enpresari Aplikatutako Estatistika | 6 | O |
| • Egitura Ekonomikoa | 6 | O |
| • Goi Mailako Finantza Kontabilitatea | 6 | O |
| • Finantza Zuzendaritza: Finantzaketa | 6 | O |
| • Merkataritza Zuzendaritza: Politikak | 6 | O |

HIRUGARREN MAILA

| 1. lauhilekoa | ECTS | Mota |
|--|------|------|
| • Enpresaren Zerga Araubidea | 6 | O |
| • Kontabilitate Análisisa | 6 | O |
| • Estrategia Zuzendaritza: Enpresa Politika | 6 | O |
| • Makroekonomia | 6 | O |
| • Ekonometria | 6 | O |
| 2. lauhilekoa | ECTS | Mota |
| • Kontabilitateko Egoera Orrien Baterakuntza | 6 | O |
| • Estrategia Zuzendaritza: Enpresa Hazkundera eta Garapena | 6 | O |
| • Hautazkoak | | P |

LAUGARREN MAILA

| 1. lauhilekoa | ECTS | Mota |
|---|------|------|
| • Finantza Zuzendaritza: Inbertsioak | 6 | O |
| • Enpresa Zuzenbidea | 6 | O |
| • Enpresa Kudeaketarako Sistema Informatikoak | 6 | O |
| • Hautazkoa | | P |
| 2. lauhilekoa | ECTS | Mota |
| • Hautazkoak | | P |
| • Gradu Amaierako Lana | 12 | Y |

Irakasgai motaren laburdurak: D: Adarreko oinarrikoak, S: Beste adar batzuetako oinarrikoak, O: Nahitaezkoa, P: Hautazkoa, Y: Gradu Amaierako Lana





AIPAMENAK

Hirugarren mailatik aurrera hautazko ikasgaiak eskaintzen dira lau aipamen edo espezialitatetan bilduta: "Kontabilitatea eta bestelako Informazio Sistemak", "Finantzak", "Merkataritza Zuzendaritza" eta "Pertsonak eta Berrikuntza". Aipamena lortu ahal izateko berau osatzen duten irakasgai guztiak gainditu beharko dira.

Aipamena: Kontabilitatea eta bestelako Informazio Sistemak

| | Lauhilekoa | ECTS | Mota |
|--|------------|------|------|
| • Kontabilitate Publikoa | 2 | 5 | P |
| • Kudeaketa Kontabilitatea eta Barne Kontrola | 2 | 5 | P |
| • Kontabilitatearen eta Kontu Auditoriaren Lege Markoa | 2 | 5 | P |
| • Kontu Auditoria | 1 | 5 | P |
| • Kontabilitate Aurreratua eta Zerga Sistema | 1 | 5 | P |
| • Atzerriko enpresa hizkuntza* | 1 | 5 | P |

Aipamena: Finantzak

| | Lauhilekoa | ECTS | Mota |
|-----------------------------------|------------|------|------|
| • Enpresen Balorazioa | 2 | 5 | P |
| • Nazioarteko Finantzak | 1 | 5 | P |
| • Finantza Erakundearen Kudeaketa | 2 | 5 | P |
| • Finantza Merkatuen Kudeaketa | 1 | 5 | P |
| • Nazioarteko Finantza Sistema | 2 | 5 | P |
| • Atzerriko enpresa hizkuntza* | 1 | 5 | P |

Aipamena: Merkataritza Zuzendaritza

| | Lauhilekoa | ECTS | Mota |
|--------------------------------|------------|------|------|
| • Nazioarteko Marketina | 1 | 5 | P |
| • Marketin Aurreratua | 2 | 5 | P |
| • Marketin Sektoriala | 1 | 5 | P |
| • Merkataritza Ikerketa | 2 | 5 | P |
| • Kontsumo Zuzenbidea | 1 | 5 | P |
| • Atzerriko enpresa hizkuntza* | 2 | 5 | P |

Aipamena: Pertsonak eta Berrikuntza

| | Lauhilekoa | ECTS | Mota |
|---|------------|------|------|
| • Kudeaketa Eredu Berriak | 1 | 5 | P |
| • Berrikuntza Sistemak eta Politikak | 1 | 5 | P |
| • Pertsonal Politikak, Eginkizunak eta Teknikak (Enpresaren Soziologia I) | 2 | 5 | P |
| • Antolakuntza Aldaketa eta Berrikuntza (Enpresaren Soziologia II) | 1 | 5 | P |
| • Zuzenbidea II: Lan Harremanen Zuzenbidea | 2 | 5 | P |
| • Atzerriko enpresa hizkuntza* | 2 | 5 | P |





*Aipamen hauek atzerriko enpresa hizkuntza gaitasunak jorratzen dituzten lau ikasgaiekin osatzen dira. Ikasgai horietan hiru atzerriko hizkuntza lantzen dira: ingelesa (I eta II maila aurreratuak), frantsesa (I eta II hastapen eta bitarteko mailak) eta alemana (I eta II hastapen mailak). Aipamena lortu ahal izateko ondoren aipatzen diren atzerriko enpresa hizkuntzetako edozein gainditu behar da.

Atzerriko enpresa hizkuntzak

| | ECTS | Mota |
|---|------|------|
| • Advanced Business English I | 5 | P |
| • Advanced Business English II | 5 | P |
| • 2ème Langue Étrangère des Affaires I: Français | 5 | P |
| • 2ème Langue Étrangère des Affaires II: Français | 5 | P |
| • 2. Wirtschaftssprache für Anfänger I: Deutsch | 5 | P |
| • 2. Wirtschaftssprache für Anfänger II: Deutsch | 5 | P |

Hautazko irakasgaien eskaintza osatzeko, eta UPV/EHUko Euskararen Plan Zuzentzailean ezarrita dagoenari jarraiki, hautazko bi Euskara irakasgai eskaintzen dira, ekonomia- eta enpresaren arloko komunikazio eta hizkuntza-gaitasunak euskaraz lantzearen.

Euskararen Plan Gidaria

| | ECTS | Mota |
|---|------|------|
| • Komunikazioa Euskaraz: Ekonomia, Enpresa eta Lan Harremanak | 6 | P |
| • Euskararen Arauak eta Erabilerak | 6 | P |

Era berean, unibertsitateko kultura- eta kirol-ekintzetan, elkartasun- eta lankidetzajardueretan eta ikasleen ordezkari-lanetan aritzeagatik kredituak onartzeko eskatu ahal izango dute ikasleek. Ekintzak unibertsitatean ikasten egon diren bitartean burutu behar dira eta gehienez ere ikasketa-planeko 6 kreditu eskatu ahal izango dira.

Web orrian irakasgaietako programak, eskoletako ordutegiak, azterketen datak, eskola-egutegia, eta Fakultatearekin zerikusia duen bestelako informazioa kontsulta daitezke.





PRESTAKUNTZA DUALA: UNIBERTSITATEA-ENPRESA

"Prestakuntza Duala: Unibertsitate-Enpresa" ibilbideak ikasketa akademikoak eta enpresa praktikak integratzen ditu. Txandakatzearen helburu nagusia da ikasleen gaitasunak garatzea, profi profesionalarekin bat etorrira eta inguruko enpresen premietara egokituta; hau da, profesionalizatzea eta ingurune sozioekonomiko batean sartzea.

'Prestakuntza Duala: Unibertsitatea-Enpresa', hain zuzen, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradu ikasketa planean ibilbide berri gisa sartzen da, lehendik dauden lau aipamenekin batera: Kontabilitatea eta bestelako Informazio Sistemak, Finantzak,

Merkataritza Zuzendaritza, eta Pertsonak eta Berrikuntza. Espezialitate horietan bezala, ibilbide duala hirugarren mailako bigarren lauhilekoan egingo da, eta gradu ko laugarren mailako lehenengo eta bigarren lauhilekoetan.

Oro har, ibilbide dualean, ikasleak, batetik, ikastegian enpresarako orientazioko bi irakasgai (10 ECTS) egingo ditu, eta, bestetik, enpresa egonaldi bat egingo du hiru fasetan (38 ECTS). Azkenik, ikasleak enpresako egonaldiari lotutako Gradu Amaierako Lana egin eta aurkeztu beharko du (12 ECTS).

Ikasleak enpresarekin duen lotura konpromiso formal batez gauzatu behar da, lan kontratu baten bitartez edo, salbuespen gisa, praktiken hitzarmen edo antzekoren baten esparruan. Ahal izanez gero, prestakuntza loturadun lanaldi partzialeko kontratua egingo da. Nolanahi ere, ikastegiaren eta enpresaren arteko txandakatzea enpresa kolaboratzailearekiko hitzarmen baten bidez formalizatuko da.






Prestakuntza Dualeko Ibilbidea: Unibertsitatea-Enpresa

| | Maila | Lauhilekoa | ECTS | Mota |
|------------------------------|--------------|-------------------|-------------|-------------|
| • Enpresarako Orientazioa I | 3. | 2 | 5 | P |
| • Enpresako egonaldia I | 3. | 2 | 13 | P |
| • Enpresarako Orientazioa II | 4. | 1 | 5 | P |
| • Enpresako egonaldia II | 4. | 1 | 10 | P |
| • Enpresako egonaldia III | 4. | 2 | 15 | P |

“Prestakuntza Dualeko Ibilbidea: Unibertsitatea-Enpresa” osatzeko, enpresako egonaldiari lotutako Gradu Amaierako Lana egin behar da.





GRADU AMAIERAKO LANA

Gradu Amaierako Lana (GRAL) ikasleak gainditu behar duen ikasgaia da Gradia lortu ahal izateko. Ikasleak proiektu, memoria edo ikerketa original bat egingo du banaka, zuzendari baten edo gehiagoren ikuskapenarekin. Lan horrek graduko irakaskuntza-aldian eskuratutako prestakuntza-edukiak, gaitasunak eta trebetasunak barne hartuko eta garatuko ditu.

GRALak tituluari lotutako gaitasun orokorrak aplikatzera bideratuta egon beharko du, baita ikerketa arlo batean garrantzitsuak diren datuak bilatzeko, kudeatzeko, antolatzeko eta interpretatzeko gaitzera ere, mota askotako gai garrantzitsuei (ekonomikoa, soziala, zientifikoa, teknologikoa edo etikoa...) buruzko gogoeta barne hartzen duten iritziak emateko eta pentsamendu nahiz uste kritikoa, logikoa eta sortzailea garatzea errazteko.

GRALaren helburua zera da, graduan prestatutako ikaslea gai dela erakustea bere negozioa sortzeko, enpresen administrazio eta zuzendaritzaren eta beste erakunde publiko edo pribatu batzuen arloan zeinahi eginkizun egiteko edo emaitza interesgarriak eta originalak eskuratzeko bide emango dion ikerketa-proiektu bat gauzatzeko.



IRAKASKUNTZA ELEANIZTUNA

Ikasketak euskaraz zein gaztelaniaz egin daitezke. Ildo horretan, azpimarratu egin behar da ikastegiko irakasleek ahalegin handia egin dutela euskarazko irakaskuntza-materiala prestatzeko eta argitaratzeko.

Era berean, oinarrizko, nahitaezko eta hautazko irakasgai batzuk atzerriko hizkuntzatan egin daitezke. Gure ingurune sozioekonomikoan gehien erabiltzen diren atzerriko hizkuntzak sustatze aldera, Gradu Amaierako Lana ere ingelesez, frantsesez edo alemanez egin daiteke (oso-osorik edo zati bat).

Gradua lortu ahal izateko, atzerriko hizkuntza batean komunikatzeko gaitasuna (ahal bada, ingelesez, frantsesez edo alemanez) frogatzea nahitaezkoa da eta ondorengo modu alternatiboen bidez egin daiteke:

- A) Titulazioko irakasgai bi ingelesez, frantsesez edo alemanez egin izana, biak hizkuntza berean.
- B) Gaztelaniaduna ez den herrialde batean truke programa batean egon izana gutxienez lauhileko batez.
- C) Atzerriko hizkuntza batean komunikatzeko kanpoan onartutako ziurtagiri bat izatea (Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Batuari dagokion B2 maila).

Guzti honek ikaslearen formazio eleanitza osatzen du eta bizi dugun ingurune ekonomiko globala kontutan izanik, irakaskuntza eleanitzaren balioa kontutan izan beharrekoa da.

IRAKASKUNTZA- BERRIKUNTZA



Irakasleek irakaskuntza-berrikuntzarekiko hartu duten konpromisoaren ondorioz, eskola praktikoei eta mintegiei gero eta garrantzi handiagoa dute ohiko irakaskuntza-metodologia gisa. Jarduera horiek talde txikitan egiten dira, problemak ebazteko, kasuak analizatzeko, lanak azaltzeko eta beste zeregin batzuetarako; hala, ikasleek ikaskuntzarekiko jarrera aktiboa izaten dute eta irakasleekin interakzio handiagoa izaten dute.

Irakaskuntza-jarduera guztien euskarri gisa, UPV/EHUK eGela ikaskuntza birtualerako plataforma jarri du unibertsitate-komunitatearen esku. Plataforma honi esker, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak irakaskuntzarako aprobeitza daitezke.

Bestalde, irakasle guztiek ikasleentzako arreta-zerbitzu pertsonalizatua eskaintzen dute: tutoretza. Hala, ikasleek beren zalantzak azaltzeko, arazoak konpontzeko eta oro har irakasleekin zuzenean harremanetan jartzeko aukera dute.

Azkenik, Fakultateak irakaskuntzaren eta irakaslearen kalitatea neurtzeko zenbait mekanismo ditu (asebetetze eta iritzi inkestak) eta etengabeko hobekuntza bultzatzeko Errektoreordetzatik sustatutako programetan parte hartzen du.



MUGIKORTASUN-PROGRAMAK

Fakultateak truke akordioak ditu atzerriko hainbat unibertsitaterekin.

Co-operation within mobility programmes enables the students and academic staff to acquire valuable experience at foreign educational institutions and to enrich their knowledge.

In this respect, the Faculty in Donostia has established Erasmus agreements with the following Colleges and Universities:


- SHR Hochschule Heidelberg
- Hochschule Emden
- Fachhochschule Düsseldorf
- Fachhochschule Schmalkalden
- Hochschule Für Technik Und Wirtschaft Mittweida
- Hochschule für Wirtschaft und Recht Berlin
- Hochschule Bremen
- OTH Regensburg
- Universität Regensburg
- Hochschule Ruhr West
- Leuphana Universitaet Lueneburg
- Fachhochschule Vorarlberg GBBH
- Haute Ecole de la Province de Liège
- Haute Ecole Libre Mosane
- Sofia University "Saint Kliment Ohridski"
- Cyprus University of Technology
- Fredereick University
- Juraj Dobrila University of Pula
- Erhversakademiet Lillebaelt
- International Business Academy, Kolding



- Ekonomická Univerzita V Bratislave
- Univerza na Primorskem
- Tallinn University of Technology
- Lahti University of Applied Sciences
- ISCID-CO (UNIVERSITE DU LITTORAL COTE D'OPALE) (Dunkerque-Lille)
- IPAG Business School (Paris-Niza)
- Institut des Hautes Etudes Economiques et Commerciales (Paris)
- Université de Pau et des Pays de l'Adour (PAU e I.U.T. de Bayonne)
- Université de Bordeaux
- Fontys University of Applied Sciences
- Avans University of Applied Sciences, s' Hertogenbosch
- Hanze University of Applied Sciences
- University of Dunaújváros
- King Sigismund Business School
- Budapest Metropolitan University
- University of Greenwich
- Dublin Institute of Technology



- Cork Institute of Technology
- Università Degli Studi di Chieti "Gabriele d' Annunzio"
- Università degli studi Magna Graecia di Catanzaro
- Università degli Studi di Foggia
- Università degli Studi di Roma "La Sapienza"
- Kaunas University of Technology
- Université du Luxembourg
- University College Of Southeast Norway
- Nord University
- WSB University of Poznan
- Politechnika Poznanska
- Akademia Ekonomiczna w Krakowie
- Wyzsza Szkola Zarzadzania I Prawa Im. Heleny Chodkowskiej W Warszawie
- Instituto Politécnico de Santarém
- Instituto Politecnico do Porto
- Instituto Superior de Contabilidade e Administração do Porto
- Instituto Superior Miguel Torga
- Tomas Bata University in Zlin
- Univerzita Jana Evangelisty Purkyne V Ústi Nad Labem
- Universitatea "Lucian Blaga" Din Sibiu
- University of Applied Sciences Northwestern Switzerland, Basel



There are also exchange programmes with Latin America, Spanish universities within the Sicue programme and double degree programmes.



A photograph of a woman with long brown hair, wearing a light-colored patterned top, looking intently at a document she is holding. The background shows a server room with racks of equipment and a water cooler. The text 'ENPRESETAKO PRAKTIKAK ETA LAN-POLTSA' is overlaid on the image in a white box with orange text.

ENPRESETAKO PRAKTIKAK ETA LAN-POLTSA

Fakultateak Donostian BIDELAN Enpresa Harremanetarako Bulegoarekin kontaktzen du, ikasleen eta lan-munduaren arteko harremana errazteko, eta ezaguera eta gaitasun praktikoez gain, lanbide-esperientzia emateko.

BIDELANek harremanak ditu enpresekin eta erakundeekin, eta ikasleei borondatezko praktikak egiteko aukera ematen die. Bestalde, Fakultateko ikasle eta egresatuek osatutako lan-poltsa jartzen du enpresen esku. Praktikak borondatezkoak izan arren, egiten dituzten ikasleek hautazko kredituak jasotzen dituzte (gehienez 18), praktiken onespenez gisa.



BALIABIDEAK ETA ZERBITZUAK

Fakultatea Donostian leku ezin hobean dago, eraikin argitsu eta handi batean. Ikasgela guztietan, kalitatezko irakaskuntza eskaintzeko beharrezkoak diren altzariak eta teknologia daude.

Gutxi gora behera 68 irakasle ditu, lanordu osotara dauden %66 doktoreak dira eta %25 atzerriko hizkuntzetan irakasteko akreditatuta daude. Administrazio eta zerbitzuetako langileak 11 dira, Atezaintza, Idazkaritza eta Zuzendaritzan banatuta daudelarik.

Besteak beste, honako baliabide hauek azpimarra daitezke: informatika-gelak, WI- FI zerbitzua, ikasketa-gelak eta taldeko lanak egiteko bereziki prestatutako guneak.

UPV/EHUko Gipuzkoako Campus-ean aurkitzen da liburutegia, Carlos Santa María eraikinean (Elhuyar Plaza, 2, Donostia) eta unibertsitate komunitate osoari eskaintzen dio zerbitzua.

Idazkaritza-zerbitzuak unibertsitateko ikasleen tramiteak kudeatzen ditu, eta Fakultateko ikaskuntza, irakaskuntza eta ikerketa babesten ditu. Zerbitzu nagusiekin gertatzen den bezalaxe, idazkaritzak ere bere Zerbitzuen Gutuna du, eskaintzen den zerbitzuaren kalitatea hobetzearren.



Errepografia-zerbitzua du, eta kafetegi- eta jantoki-zerbitzua ere eskaintzen da, modu onean. Era berean, kafetegian eta lehenengo solairuko jantokian, mikrouhin-labeak jarri dira ikasleek erabili ahal izateko.

Fakultateko zerbitzuez eta baliabideez gain, Campuseko baliabideen eta zerbitzuen eskaintza zabala ere erabil dezakete ikasleek. Besteak beste, honako hauek aipa daitezke: Kultura Hedapenerako Zerbitzua, kultur jarduerak sustatzeaz gain, hainbat ikastaro eskaintzen dituena (musika, antzerkia, hizkuntzak, etab.); Kirol Zerbitzua, kirol-norgehiagokak eta prestakuntza-jarduerak sustatzen dituena; Unibertsitate Orientaziorako Zerbitzua; edo Ezintasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua.

Unibertsitateko ikasleen ordezkaritza eta aholkularitza zein informazioa eskaintzeko helburuarekin Ikasleen Kontseiluarekin kontaktu daiteke.



HELBIDE ETA KONTAKTUA

Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Donostian) Ibaetako Campusean dago, hiriko eta lurraldeko komunikabide nagusietatik gertu. Fakultatearen alboan hiriko autobusen (DBus) eta Gipuzkoako zenbait eskualdetako autobusen (Lurraldebus) geltokia dago. Euskotreneko geltokia (Lugaritz) 15 minutura dago, oinez. Era berean, ikastetxetik oso gertu, Ignazio M^a Barriola Ikasgelategiaren parean, Donostiako Udaleko bizikletak mailegatzeko zerbitzu publikoko geltokietako bat dago.

<https://www.ehu.eus/eu/web/ekonomia-enpresa-fakultatea>

Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Donostia)

Oñati plaza, 1. 20018 - Donostia

Teléfono Zentrala: **943 018 363**

Faxa: **943 018 360**

